



ANDOINGO UDALA



Jakinarazpen elektronikoa eta B@kQ

Udal jakinarazpenak modu elektronikoan jaso eta B@kQ sistema bitartez horiek ikusteko aukera

2018ko urriaren 1etik aurrera administrazio publikoek bermatu egin beharko diete herritarrei administrazioarekin izan beharreko harremanak bitarteko elektronikoen bidez egin ahal izatea, prozedura administratiboari buruzko 39/2015 legeak ezartzen duenari jarraiki.

Elkarren arteko harremana ahalbidetzeko beharrezkoak diren sarbideak prestatzera behartzen ditu ere, hau da, administrazio bakoitzari dagozkioen tramite eta zerbitzuen katalogo bat eskaintzen duen **egoitza elektronikoa** edo web-orri bat egokitzera.

Zerbitzu horien artean, udalak bidali beharreko jakinarazpenak udal web-orrian zure eskura jartzea dago, identifikatu ondoren zerorrek konsultatu ditzazun. Jakinarazpena paperean edo formato elektronikoan aukeratu, aurrerantzean udalak bidali beharreko jakinarazpenak egoitza elektronikora igo beharko ditu **eta, horretaz informatuz, zuk emandako helbide elektronikoa edo gailura abisu bat bidali beharko dizu.**

Helburu horrekin, aurki gutun bat bidaliko da udalherriko etxebizitza guztietara, non eskatuko den bertan bizi diren 16 urtetik gorako kide guztien mugikor zenbaki bat eta helbide elektronikoa bat adierazi dezazuela, jakinarazpen abisuak bertara bidali ahal izan ditzagun.

Halaber jakinarazten dizuegu, egoitzara sartu ahal izateko eta informazio elkartrukaketan segurtasuna bermatzeko zioz, beharrezkoa dela identifikazio eta sinadura elektronikoa sistema bat, txartel digital bidez (Izenpe, DNI-e, Carmerfirma edo FNMT) edo udalak eskaintzen dizun **B@kQ** bidez.

B@kQ persona fisikoak identifikatzeko, egiaztatzeko eta sinatzeko baliabide bat da, eta honakoek osatzen dute:

- erabiltzailearen NANak/AIZk eta pasahitz batek.
- 16 posizioko koordinatu batzuek.

16 urtetik gorako andoaindarrek eska dezakete eta ordenagailuan edo mugikorrean erabil daiteka. Erabilpen oso erraza du (nahikoa da interneterako konexioa, ez da beharrezko txartel irakurgailurik, ezta ordenagailu edo mugikorrek konfiguratuta beharrik) **eta DOAN DA.**

Andoingo udalaren egoitza elektronikoan sartzeaz gain beste administrazioetako egoitzetan ere sartu ahal izango duzu, hala nola: Gipuzkoako Foru Aldundia, Osakidetza, Euskadiko beste udalak... (honekin batera doan artxiboan jasotzen dira zerbitzu bakoitzak eskaintzen dituen aukerak).

Eskatzeko indarrean dagoen NAN, AIZ edo pasaportearekin honako lekuetan aurkez zaitezke hauetako erakunde batean:

- **Ataria – Herritarren Arreta Zerbitzua** (udaletxearen beheko solairua): 8:00etatik 13:30ra.
- **KZ gunea** (Ondarreta 6): ordutegia webean kontsultatu.
- **Andoingo anbulategia**: 8:00etatik 20:00ra.

Eskaera egin ondoren Izenpek bidaliko dizkizu zure B@kQ koordinatuak eta hori aktibatzeaz azalpenak posta elektronikoz.

Honen bitartez zure B@kQ eskatu eta udal Egoitza Elektronikoa erabil dezazun gonbidapena luzatzen dizut.

Adeitasunez

Langileriako Zinegotzi Ahduna



Ainara Rodriguez Zalakain

